

Zenbakikuntza Haur Hezkuntzan

7 saio

14 ordu

16 gelan



KONPROMISOAK COMPROMISOS

KOORDINATZAILEAK

- Talde lana antolatu, dinamizatu eta jarraipena egin.
- Dokumentu batean, hartutako erabakiak eta diseinatutako ekintzak jaso.
- Lan taldekideen beharrak jaso eta guri helarazi.

IRAKASLEAK

- Sekuentzia/ tailerra/ ikas-gunerako proposamenak diseinatu eta gelan implementatu.
- Ebidentzien bidez, egindakoaren azalpena eman .



HELBURUAK OBJETIVOS

- Matematikako zenbakuntza multzoari dagozkion ideia giltzarriak, estrategia metodologikoak eta mota ezberdinetako baliabideak ezagutu.
- Sekuentzia/tailerra/ ikas-gune baterako ekintzen diseinua prestatu, gelan implementatu ahal izateko.



EDUKIAK CONTENIDOS

- Norberaren praktikari buruzko hausnarketa egin eta ondorioak atera.
- Zenbakuntza multzoari buruzko artikulu/bideo teoriko batzuen azterketa egin estrategia ezberdinak erabiliz.
- Aniztasunari erantzuteko ekintzen tipologia (Alsinaren piramidean) ezagutu.
- Jolas, joku, webgune, material manipulagarriak eta baliabide digitalak ikertu alderdi teorikoa antzemanaz.
- Zenbakuntza multzoko landu beharreko edukien atal nagusien sekuentzia ezagutu
- Taldeetan, mailaka/gelaka jardueren sekuentzia diseinatu eta beharrezkoak diren materialak prestatu eta partekatu.



EBALUAZIO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE EVALUACIÓN

IRAKASLEAK

- Zenbakuntza multzoaren aplikazioan indarguneen eta ahulezien hausnarketa egin da.
- Dokumentu batean zenbakuntza multzoari buruzko ideia giltzarriak eta estrategia metodologikoak jaso dira.
- Sekuentzia/tailerra... baterako ekintzen diseinua martxan jarri eta baloratu egin da.
- Zenbakuntzaren alderdiak lantzeko material ezberdinen bilketa/zerrenda egin da eta material berriren bat prestatu edota erosi egin da.
- Praktikan jarritako esperientziak partekatu eta baloratu dira ebidentzien bitartez.